BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/04/07

# Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onartu Aldundiak, momentuz, Karrantzako Minda kasuaren epaiaren aurrean helegitea aurkezterik

Karrantzan minda lantegia eregiteak porrot egin ostean zabaldu diran prozesu judizialei jagokenez, EH Bilduk arauz besteko proposamena aurkeztu dau, 2017ko martiaren 28an Bilboko Merkataritza arloko 2 zenbakiko Epaitegiak emon dauen 32/2017 epaiaren aurrean helegitea aurkeztu daiala eskatzeko Foru Gobernuari. Epai horretan, konkurtso prozedurea "ustebakoa" dala esaten da. Diru publikoz eratutako Karrantzako Mindak 10 milioi euro baino gehiagoko diru-laguntzak eskuratu ostean egin eban porrot. Milioi horreetatik bi Foru Aldundiak emondakoak izan ziran.

Oposizinoko gainerako alderdiak, Podemos Bizkaia, PP eta Talde Mistoa, EH Bilduren proposamenaren alde agertu dira, eta helegitea aurkeztu behar dala defendidu dabe, konkurtsoa "errudun" moduan hartu daiten lortzeko, Onintze Oleaga batzordekideak adierazo dauenez helegitea aurkezteko "arrazoi asko" dagozalako. Holan ikusi dau, baita be, Estaduko Abogadutzak, izan be, Eduardo Andrés popularrak esan dauenez, epaiaren aurrean "helegitea aurkeztu behar dau". Oposizinoak uste dauenez, helegitea irabazi ezkero, inbertidutako dirua berreskuratzeko atea zabalduko litzateke. Epaitegian beste kausa bat be zabalik dago, zigor bidetik.

Foru Aldundia eusten daben taldeek –EAJ-PNV eta PSE-EE– Batzarretan daben gehiengoak ez dau onartu proposamena, baina talde horreek proposamenaren kontra agertu diran arren, ez dabe baztertu denpora gitxi barru Aldundiak apelazinoko helegitea aurkeztea Bizkaiko Probintzia Entzutegian, baina erabagi hori Foru Erakundeko zerbitzu juridikoek egingo daben "balorazinoan" oinarrituko da. Epea "apirilaren 28an" amaituko da, María Presa jeltzaleak adierazo dauenez, eta gogorarazo dau Batzar Nagusiek daborduko eskatu ebela arauz besteko beste proposamen batean Foru Administrazinoak jasan dauen kaltea konpentsetako "egin beharreko ekintza guztiak" aurrera eroatea.

MUNDAKA FESTIBALAREN KOKALEKUA

Batzordeak ez dau onartu EH Bilduren arauz besteko beste proposamen bat. Bertan, garagarrilaren 28tik 30era Santa Katalina ingurunean, koalizino abertzalearen esanetan, "babes berezia daukan inguruan, balio immaterial, etnografiko, ondarezko, natural eta kultural handikoan", egingo dan Mundaka Festibalaren hirugarren edizinoaren sustatzaileei lizentzia ez emotea eskatzeko Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako Patronatuari. Podemos Bizkaiaren aldeko eretxia jaso dauen EH Bildu taldea ez da Mundakan ekitaldi musikala eta gastronomikoa ospatzearen kontra agertu, baina ekimena beste leku batean egitea eskatu dau.

Batzarretako gainerako taldeak proposamenaren kontra agertu dira, euren berbetan, igazko edizinoan 8.000 pertsona alkartu ebazan musika ekitaldia ospatzeko lizentzia antolatzaileei ukatzea "arbitrarioa" eta prebarikazinotik gertukoa izan daitekela uste dabelako. Jesús

Lekerikabeaskoa jeltzalearen eretxiz, ingurunea arautzen dauen ordenamendu juridikoan ez dago baimenari ezetz esatea babesten dauen “ezelango artikulurik”.

URAREN BONO SOZIALA

Horrez gain, batzordeak, EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Talde Mistoaren kontrako botoakaz, ez dau onartu EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak alkarregaz aurkeztu daben arauz besteko beste proposamen bat. Proposamen hori lurraldeko udal “askotan” aurkeztu da, eta beste gauza batzuen artea , pixkanakakotasun fiskalaren printzipioan oinarritutako tarifa politikea indarrean jartea eskatzen deutse Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta Busturialdeko Ur Partzuergoari. Errenta txikia daukien erabiltzaileei hobariak apliketea eskatu dabe talde biek, interes bako zatiketak eta luzamenduak zorretan, besteak beste.
EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek, proposamena aurkeztu daben talde biek onartu ez daben zuzenketa-eske baten bitartez, Ur Partzuergoak bere azkenengo Batzarrean, 2016ko zemendiaren 2an egindakoan, hasi eban laneko ildoari “jarraikortasuna” emotea defendidu dabe. Horren bitartez, egoera ekonomiko txarrenean dagozan familiek hobari fiskalak izango ditue, eta, beharrezkoa bada, horreek “hobetu, aldatu edo ezarri” egingo dira. Holan, talde biek, “egoera ekonomiko txarrak, etxeko erabilerarako hornidurea moztea ekarriko ez dauen” kudeaketa prozedurakaz jarraitzearen aldeko apustua egin dabe.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
07/04/2017

# Las Juntas Generales rechazan que la Diputación presente de momento un recurso a la sentencia del caso Karrantzako Minda

La comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de las Juntas Generales de Bizkaia ha abordado esta mañana el debate de tres proposiciones no de norma sobre el emplazamiento del próximo Mundaka Festival, el Bono Social del agua, y la presentación de un recurso a la sentencia 32/2017 del caso Karrantzako Minda.

En relación a los distintos procesos judiciales abiertos por la fallida construcción de una planta de purines en Karrantza, EH Bildu ha defendido a través de una proposición no de norma que el Gobierno foral presentase un recurso a la sentencia 32/2017, emitida por el Juzgado de lo Mercantil n° 2 de Bilbao el 28 de marzo de 2017, que declaraba el procedimiento concursal "fortuito". Karrantzako Minda, creada con dinero público, quebró tras lograr subvenciones por más de 10 millones de euros, dos millones procedentes de la Diputación.

La iniciativa de EH Bildu ha sido apoyada por el resto de partidos de la oposición, Podemos Bizkaia, PP y Mixto, quienes han defendido la presentación de un recurso para intentar conseguir que el concurso sea declarado "culpable" , ya que hay "muchas razones" para recurrir, según la apoderada Onintze Oleaga. Así lo ha visto también la Abogacía del Estado que, según el popular Eduardo Andrés, "va a recurrir" la sentencia. La oposición considera que de ganar el recurso, se abriría una puerta para recuperar el dinero invertido por esta vía. En los juzgados hay abierta otra causa por la vía penal.

La proposición ha sido desestimada por la mayoría parlamentaria de los grupos que sustentan el Gobierno foral -PNV y PSE- quienes, pese a su oposición, no han cerrado la puerta a que la Diputación presente próximamente un recurso de apelación en la Audiencia Provincial de Bizkaia, aunque lo han supeditado a la "valoración" que realicen los servicios jurídicos de la institución foral. El plazo concluye "el 28 de abril" según ha apuntado la jeltzale María Presa quien ha recordado que las Juntas Generales ya instaron en otra proposición no de norma a llevar a cabo "todas las acciones necesarias" para resarcir el daño causado a la Administración foral.

## UBICACIÓN DEL MUNDAKA FESTIVAL

La comisión ha rechazado otra proposición no de norma de EH Bildu que venía a solicitar al Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai la denegación de la licencia a los promotores de la tercera edición del Mundaka Festival que se celebrará entre el 28 y el 30 de julio en el entorno de Santa Catalina, "un ámbito especialmente protegido, con gran valor inmaterial, etnográfico, patrimonial, natural y cultural", han apuntado desde la coalición abertzale. Sin negarse a la celebración del evento musical y gastronómico en Mundaka, EH Bildu, que ha recibido el apoyo de Podemos Bizkaia, pedía en la iniciativa un nuevo emplazamiento.

El resto de grupos de la Cámara han rechazado la idea al considerar que negar la licencia a los organizadores para celebrar el evento musical que reunió a 8.000 personas en la edición del año pasado, podría resultar "arbitraria" y cercana a la prevaricación. Para el jeltzale Jesús Lekerikabeaskoa , no existe "ningún artículo" en el ordenamiento jurídico que afecta al entorno, que ampare la denegación de dicho permiso.

BONO SOCIAL DEL AGUA

Asimismo, la comisión, con el voto contrario de PNV, PSE-EE, PP y Mixto, ha desestimado una proposición no de norma conjunta de EH Bildu y Podemos Bizkaia, presentada en "muchos" ayuntamientos del territorio, que pedía trasladar al Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia y al Consorcio de Aguas de Busturialdea, entre otras cosas, poner en práctica una política tarifaria basada en el principio de la progresividad fiscal. Ambos grupos han solicitado que se apliquen bonificaciones, fraccionamientos sin intereses y moratorias en las deudas a personas usuarias de baja renta.

Por su parte, PNV y PSE-EE han defendido por medio de una enmienda –no aceptada- que se diera "continuidad" a la línea de trabajo iniciada por el Consorcio de Aguas en la última asamblea, celebrada el 2 de noviembre de 2016, por la que las familias en situación económica más desfavorecida dispongan de bonificaciones fiscales, y, de ser necesario, sean "mejoradas, modificadas o implementadas". En este sentido, ambos grupos han apostado por mantener los procedimientos de gestión que "garanticen que una situación económica desfavorecida no provoque el corte de suministro en el abastecimiento para uso domiciliario".